

# Hamazazpi

2023ko udazkena



**EKIOLA INICIA  
EL PROYECTO  
DEL PRIMER  
PARQUE SOLAR  
FOTOVOLTAICO  
EN GORBEIALDEA**

AZPIEGITURA

Bengolarrako eraberritzeak  
etengabe aurrera jarraitzen du

GIZARTEA

Oketa, 30 urte Zigoitian kultura  
sustatzen

29 ZB  
Nº

ZIGOITIA  
UDALA-AVUNTAMIENTO



Financiado por  
la Unión Europea  
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,  
Transformación y Resiliencia





# Ekiola inicia el proyecto del primer parque solar fotovoltaico en Gorbeialdea

**L**a futura instalación de Ekiola Gorbeialdea estará ubicada en Zigoitia, en un terreno en Etxabarri-Ibiña, y tendrá una potencia de 1 megavatio.

Ekiola Gorbeialdea es un proyecto que impulsa la generación eléctrica distribuida con tecnología solar fotovoltaica, gestionados por cooperativas de consumo y participadas por la ciudadanía. La de Gorbeialdea se suma a las Ekiolas constituidas en Aiara, Añana, Arabako Errioxa, Arabako Lautada y Mendialdea.




La instalación de este parque solar dispone de una garantía de 25 años de funcionamiento y rendimiento, por lo que la energía tendrá un precio fijo, estable durante ese periodo.

El principal objetivo de esta iniciativa es que sea la propia ciudadanía quien genere el 100% de la energía eléctrica renovable que precisan para cubrir sus necesidades. Con este proyecto de cooperativas locales de consumo energético, cada persona podrá entender cómo consume energía

y cómo la genera su instalación y podrá establecer estrategias de consumo para ajustar y mejorar sus economías y lograr así la mayor proximidad posible entre su forma de generar y de consumir. Será su contribución a la mitigación del cambio climático.

Asimismo, la propia cooperativa funciona como instrumento legal para afrontar el futuro energético en función de sus planteamientos, y sus miembros no tienen que cambiar ningún aspecto de su instalación eléctrica doméstica.





Ekimen honen helburu nagusia da herritarrek eurek sortzea beren beharrak asetzeko behar duten energia elektriko berritzagariaren % 100a. Proiektu honetan parte hartu nahi duten pertsonek aurrematrikula bat egin dezakete, inolako konpromisorik gabe, formularioa webgunean betez eta NANa eta argiaren azken faktura aurkeztuz.

Gorbeialdeko Kuadrillako familiez gain, Arabako Foru Aldundiak proiektua zabaldu nahi die lehen sektoreko merkatari txikiei, autonomoei eta ustiateiei, baldin eta haien elektrizitate kontsumoa eta beharrak etxekoenean unitateen antzekoak badira.



Los y las partícipes de la cooperativa obtendrán energía a un precio fijo y justo y todo ello con la aportación de una mínima inversión. Además, gracias a las subvenciones europeas y las deducciones fiscales la aportación se amortiza en pocos años. Las personas interesadas en formar parte de este proyecto pueden realizar una prematrícula, sin ningún compromiso, rellenando el formulario en la web y aportando su DNI y la última factura de la luz. Tras ello recibirán el informe con

los datos técnicos y económicos del proyecto y el coste de formar parte de la cooperativa energética. Además de las familias de la Cuadrilla de Gorbeialdea, la Diputación Foral de Álava pretende extender el proyecto a los pequeños comerciantes, autónomos y explotaciones del primer sector, que mantengan consumos y necesidades eléctricas similares a las domésticas. Las personas interesadas que necesiten más información pueden solicitarla en la página web de

Ekiola: <https://ekiola.eus/es/gorbeialdea-ekiola/>.

Ekiola es una iniciativa promovida por el Ente Vasco de la Energía y la ingeniería KREAN, junto a ENARGI ARABA Sociedad Pública adscrita al Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava. Los principales objetivos que persiguen son: el origen renovable, el Km 0, la participación ciudadana sin restricciones, el modelo cooperativo y el precio justo por la energía.



# Bengolarrako eraberritze lanak etengabe aurrera jarraitzen du

Azken urte eta erdi honetan aurrerapen ugari egin dira, hala nola eraispenak, lur-mugimenduak, zimenduak jartze, egitura, estali desberdinak, isolamenduak, iragazgaitzeak eta igeltserotza. Eta dagoeneko instalazio, estaldura eta urbanizazio lanei ekin zaie. Bengolarra erreferente bihurtu da udal eraikin eraginkor, ekologiko eta jasangarrien aldeko apustuari dagokionez. Hori dela eta, instalazio hau energia aurrezteko, jasangarritasunerako eta irisgarritasunerako indarrean dagoen araudiaz haratago joateko egindako ahaleginak markatzen ditu obra hauek.

## *La reforma de Begolarra avanza de forma constante*

Durante este último año y medio se han realizado numerosos avances como demoliciones, movimientos de tierras, cimentación, estructura, cubiertas, aislamientos, impermeabilizaciones y albañilería. En estos momentos ya se están ejecutando las instalaciones, revestimientos y urbanización. Bengolarra se ha erigido en un referente en cuanto a la apuesta por edificios municipales eficientes, ecológicos y sostenibles.



# Hiri antolamenduko plan orokorrak aurrera doa

Idatzi ondoren, Osoko Bilkurak txosten sektorialetan eta Udal Plangintzako Aholku Batzordearen proposamenetan oinarrituta hartutako erabakiaren jarraiбideen arabera, apirileko osoko bilkurako gai-zerrendan sartu zen, hasierako onespina emateko. Jendaurrean jartzeko eta alegazioak aurkezteko epea ireki zen 2023ko ekainaren 7tik irailaren 29ra. 81 alegazio jaso dira. Antolatu zen HAPORi buruzko arreta-zerbitzuak 60 kontsulta baino gehiago artatu zituen aurrez aurre.

Era berean, dagozkion txosten sektorialak eskatu dira, Ingurumen Dokumentu Estrategikoa barne. Jasotako dokumentazio berria aztertu ondoren, Osoko Bilkurak behin-behinean onartu ahal izango du, alegatutako eta egokitzat jotzen diren aldaketak baietsiz. Horiek dokumentu berri batean gehituko dira, eta dokumentu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari eta Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaie, behin betiko onar ditzaten eta, ondoren, indarrean sar daitezen, argitara ditzaten.

## Avanza el proceso del PGOU

Tras su redacción, según las indicaciones del acuerdo de Pleno en base a los informes sectoriales y a las propuestas del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, se incluyó en el orden del día del pleno de abril para su aprobación inicial resultando aprobado. Se abrió un periodo de exposición pública y presentación de alegaciones del 7 de junio al 29 de septiembre de 2023. Se han recibido 81 alegaciones. El servicio de atención sobre el PGOU que se organizó atendió presencialmente más de 60 consultas. Asimismo, se han solicitado los informes sectoriales pertinentes, incluido el Documento Ambiental Estratégico. Tras el análisis de la nueva documentación recibida, el Pleno lo podrá aprobar provisionalmente estimando aquellas modificaciones alegadas que considere. Estas se añadirán en un nuevo documento, que será el que se envíe a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva y posterior publicación para su entrada en vigor.





# 30 urte Zigoitxian dantzak eta kultura bultzatzen

OKETA ALAI DANTZA TALDEA

## ¿Qué balance hacéis de 2022 y 2023?

2022 fue un año bastante activo, recuperando la normalidad tras la pandemia. Como temas más especiales, realizamos un vídeo conmemorativo, "IN MEMORIAM", en colaboración con la asociación etnográfica Abadelaueta y Josu Santamarina, arqueólogo especializado en la Guerra Civil. En este vídeo, financiado por el Ayuntamiento, quisimos hacer un homenaje a través de las danzas a todas las personas que fueron víctimas de la guerra civil en territorio zigoitano. Además, también participamos en los actos de hermanamiento con Vall d'en Bas.

2023 ha sido muy positivo. Hemos tenido varias actuaciones donde la participación ha sido muy alta, lo que ha llevado a que este curso se apunten aún más personas, tanto adultos como niños. Gorbeialdeko Dantzarien topaketa en Zigoitia, el Certamen Interescolar de Danzas Vascas de Álava en Gasteiz; la Feria del Caballo en Ondategi... Recientemente hemos actuado en el Zigoitia Euskaraz y en el Euskal Herriko Dantzari Eguna, en Donostia. Podemos decir que 2023 está siendo un gran año para Oketa Alai.

## Aurten ospatu duzue Oketa Alai Egunaren lehen edizioa. Nola sortu zen ideia hori?

Egun berezi bat egin nahi genuen gure herrian, gure jendearekin batera, eta egiten genituen dantzak erakutsi. Oso egun polita izan zen, elkarteko dantzariek parte hartu baitzuten, baita gaur egun gurekin dantzatzen ez duten batzuek ere.



Eguna kalejira batekin hasi zen Oketa Alaiko lokaletik frontoiraino. Bertan, dantza erakustaldiari ekin genion, oraingoan euskal geografiari errepassoa egitea erabaki genuen eta probintzia bakoitzeko dantza tipikoak egin genituen. Erakustaldiaren ondoren, bazkari herriko bat antolatu genuen eta eguna Dantza Plaza dibertigarri batekin amaitu genuen frontoian.

## ¿Alguna novedad para lo que resta de 2023 y para 2024?

Todavía no tenemos actuaciones cerradas para lo que queda de año, pero seguro que alguna saldrá e iremos con ganas. Como se sabe, tomamos parte en todos los Dantza Plaza que nos van surgiendo, en los que la diversión está asegurada. Como novedad, de cara al 2024, nos estamos planteando viajar a San Remo, Italia, a un festival de folclore a nivel mundial. Y también tenemos mucha ilusión por organizar la segunda edición del Oketa Alai Eguna, que fue todo un éxito y al que invitamos a todo el mundo.

## Zer ekarpentegitzen dio Oketa Alai a Zigoitiari?

Oketa Alaiak ariketa fisikoa alaitasunez eta dibertimenduz egiteko modu osasunarraia

Oketa Alai Dantza Taldea herri ekimenez sortu zen eta Oketa Kirol, Kultura eta Jolas Elkartearen beste atal bat bezala integratu zen. Oketa S.D.C.R. eta Dominizubi elkartetako parte izan ostean, 2016an bakarkako bideari ekin zion Oketa Alai Dantza Taldea Elkartea bezala. Kultura zabaltzea du helburu, dantzak hainbat talderi irakatsiz eta Zigoitia osoan zabalduz. Gaur egun adin guztiak 60 dantzari baino gehiagoz ostitua dago eta hauak Oketa Alai txikiak, Oketa Alai gazteak, Dantza Plaza hastapena, Dantza Plaza ertaina eta Dantza Plaza aurreratura taldeetan banatuta daude.

eskaintzen dio Zigoitiari, gure jendearengan dantzen kultura sustatzeaz gain.

## Por último, ¿Qué mensaje lanzáis a la gente para que se anime a formar parte de Oketa Alai?

Siquieres bailar, deja la vergüenza en casa y animárate a participar. Puedes probar en cualquier Dantza Plaza que haya en el municipio o animándote a las clases que se imparten durante la semana. Puedes contactar con nosotras en el siguiente email: [oketaalaidantza@gmail.com](mailto:oketaalaidantza@gmail.com)



# Zein etorkizun opa diogu euskarari Zigoitian?

*Otsailaren 21eko arratsaldean, udalak egindako deialdiari erantzun eta zigoitiar taldetxo bat elkartu zen udaletxeko bilera-aretoan. Deialdiaren arrazoia esaldi bakarrean laburbiltzeko modukoa zen: “Zer etorkizun opa diogu euskarari Zigoitian?”. Erantzun errazik gabeko galdera, zinez... baina baita hausnarketarako bidea irekitzeko atea ere.*

Bat baino gehiago dira Zigoitian euskararen ezagutza, erabilera eta hizkuntzaren aldeko jarrera lantzeko jarduerak, programak, egitasmoak; izan arnas luzekoak, izan puntuak. Horrek, besteak beste, adierazten du badagoela gure hizkuntzaren aldeko herri-gogo bat, bulkada kolektibo bat. Eta ez hori bakarrik: adierazten du, era berean, badaudela bideak, metodoak eta estrategiak, bulkada horri forma emateko erabilgarri zaizkigunak. Beraz, badago mugimendua. Baina, ezinbestean, badago inertziarako arriskua ere. Esaerak dio dabilen harriari ez zaiola goroldiorik itsasten, baina baliteke, dabilen harri horrek, beti bide berbera egitea ere. Horregatik, komeni da noizean behin bulkada horri atseden apur bat ematea, gauzak soseguz aztertzea, eta epe luzerako begirada bat lantzea.

Horixe izan zen otsailaren 21eko arratsaldean egindako saioaren asmoa. Elkartutako taldetxoak, egia esan, ekarpen benetan interesgarriak egin zituen. Denetarako tartea egon zen: hausnarketarkoa, iritzia ematekoa, kontrastea egitekoa, lehentasunak markatzeko, hutsuneak adierazteko... Zigoitian euskarak gaur egun duen osasuna eta etorkizunera begira izan dezakeen joera aztertzeko aukera eder bat izan zen, azken finean. Ez da erraza saioan aztertutako gai guztien laburpena egitea. Baina, zerbait nabarmentzekotan, ondoren datozenak nabarmenduko genituzke. Batetik, belaunaldi berrieik euskara bizitzeko duten modu berria sarri aipatu zen, eta euskaltaetasuna gizartearekin batera aldatzen joateak erronka berrien aurrean jartzen gaituela



(baita Zigoitian ere) izan zen ondorioetako bat. Bestetik, Zigoitiko eremu ezberdineta euskararen erabilera dituen gorabehererei nola aurre egin ere aztergai izan zen: Bengolarrako inguruau, udalerriko zerbitzu gehienak dauden lekuau, euskararen erabilera nabarmen igotzen dela aipatu zen, herriekin edo bestelako bilguneekin (tabernak, adibidez) alderatuta; beraz, nola hedatu Bengolarrako erabilera hori udalerriko beste espazio batuetara, horra erronka berri bat. Zigoitia Euskarazek udalerriko euskaltzaleen eta herritarren artean duen paperaz, bi asteburutan pilatzen den indarrari beste helburu gehigarri batzuk emateaz ere aritu ziren bertaratuak, esaterako. Ez da azkeneko saioa izango: etorriko dira beste batzuk ere. Hausnartzea da lehenengo pausoia, hausnartutakoari forma ematea eta ekitea da bigarrena. Bitartean, goza dezagun gure hizkuntzaz, izango baita horretarako aukera: iraileko lehenengo bi asteburuetan (irailaren 1ean eta 2an, eta 8an eta 9an) izango da 2023ko Zigoitia Euskaraz. Apuntatu agendetan!



## Euskaraz bustitako bi asteburu

Zaitegin hasi behar zuen irailaren 2an urteroko bizikleta martxak, baina ezin izan zuen hasi. Eta Zaitegin bertan, martxa bukatu ondoren, egin behar genuen dantza DJ Kaktusekin, eta ondoren Lantzean Behin taldeko lagunekin, baina ez zen hala izan: euri arriskuak hala aginduta, ekitaldi guztiak Bengolarra frontoian egitea erabaki zuen antolakuntza-taldeak. Eta, aterpean izanik ere, giro paregabea bizi izan genuen: zigoitarrek bikain erantzun zuten, eta arratsalde eta iluntze ederra pasa ahal izan genuen, kantxa gainean behar beste dantza-pauso eginda. Bide batez, ezin ahaztu Zaitegiko herritarrek emandako laguntza, azpiegitura-lanetan. Eribera egin zuen bisita Zigoitia Euskaraz ekimenak hurrengo egunean. Irailaren 3ko goizerako plana ere ederra zen: Abadelaueta elkarteko kideek euskal toponimiaren inguruko azalpenak eman zizkigutten, horretarako antolatutako osteratxo batean. Mairu abesbatzaren emanaldiarekin bukatu zen goiza, lehenengo elizan,

eta ondoren mahaiaren bueltan. Jende-multzo polita elkartu zen igande goizean ere: paradoxa dirudi, baina euskara lau haizetara zabaltzeko, ez dago jendea biltzea bezalakorik... Kontua da euriak (edo, hobe esan, euri arriskuak) ez zuela meniarik eman, eta bigarren asteburuko igandera ere egoera bertsuan iritsi ginela. Muruako harrobietako ingurune ederrean programatutako guztia Bengolarran egitera pasa, eta, horrela, festa-giroa itzuli zen frontoira. Kobazuloko jaialdiaren ondoren, herri-bazkaria, Stilt taldearen jazz emanaldi goxoa, eta Joxe Mendizabalen erromeria izan ziren eguneko menua. Bustitzea aukeratzekotan, euriz baino, euskaraz bustitzea aukeratu zuten bertan ibili zirenek. 2024ko ediziora arte iraun dezala umeltasun horrek...

### ...eta urtea euskaraz amaituko dugu

Iraila da, Zigoitian, urtean zehar euskararen alde egiten diren ekitaldien erdigunea. Baina badira



**Esan daiteke Zigoitia Euskarazen helburua euskara lau haizetara zabaltzea dela. Ekimenaren barruan antolatutako jarduerak non eta nola egiten diren ikusita, gainera, zentzu handiagoa du definizio horrek: aire librea garatzen dira, gutxi asko, iraileko lehenengo bi asteburuetan egiten diren ekintza guztiak. Eta horrek badu, zentzu guztieta, bustitzeko arriskua...**

beste data batzuk ere; adibidez, abenduaren 3ko nazioarteko euskararen eguna. Zigoitiko Udalak ia prest du egun horietarako kultur-proposamena. Oraingoz, "magikoa" izango dela aurreratu dezakegu. Urtea euskaraz amaitzeko modu ederra izango dela, hori seguru.



## Intereseko informazioa Información de interés

### UDALETXEA

### AYUNTAMIENTO

945 464 041

[zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

### GIZARTE LANGILEA

### TRABAJADORA SOCIAL

945 464 341

### ZIGOITIKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA

CENTRO RURAL DE ATENCIÓN  
DIURNA DE ZIGOITIA

945 464 310

[crad@zigoitia.eus](mailto:crad@zigoitia.eus)

### ZIGOITIKO GIZARTE ETA

### KULTUR ZENTROA

### CENTRO SOCIOCULTURAL DE ZIGOITIA

945 464 400

[kulturtegia@zigoitia.eus](mailto:kulturtegia@zigoitia.eus)

### ZIGOITIKO UR PARTZUERGOA

CONSORCIO DE AGUAS DE  
ZIGOITIA

945 464 300

[consorciodeaguas@zigoitia.eus](mailto:consorciodeaguas@zigoitia.eus)

### ZIGOITIKO HAURRESKOLA

### GORBEIA

### ESCUELA INFANTIL GORBEIA DE ZIGOITIA

945 464 488

[gorbeia.zigoitia@haurreskolak.net](mailto:gorbeia.zigoitia@haurreskolak.net)

### HLHZ GORBEIA ESKOLA

### CEIP GORBEIA ESKOLA

945 464 257

[010350aa@hezkuntza.net](mailto:010350aa@hezkuntza.net)

### ZIGOITIKO BAKE-EPAITEGIA

### JUZGADO DE PAZ DE ZIGOITIA

945 464 410

### ZIGOITIKO OSASUN ZENTROA

CENTRO DE SALUD DE  
ZIGOITIA

945 430 030

[csgopegi@osakidetza.net](mailto:csgopegi@osakidetza.net)

### BOTIKA

### FARMACIA

945 460 825



**ZIGOITIA**  
UDALA-AYUNTAMIENTO

[www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus)

## KULTUR AGENDA CULTURAL

### AZAROA - NOVIEMBRE

#### 4 / Larunbata - sábado

##### Antzerkia clown.

“Sex o no Sex”, Virginia Imaz.

19:00: Manurga, Gizarte zentroa // Centro social. Oihulari Klown Kontatzen dute emakumeak zikloa. Bideart Eszena.

#### 7 / Astearta - martes

##### Dokumentala - Documental.

“Micaela Portilla: templos, torres y caminos - Elizak, dorreak eta bideak”.

18:00: Zigoitia antzokia - teatro (Aulas +55).

#### 10 / Ostirala - viernes

##### Hitzaldia - Charla.

“Mexikotik Brasilerá mendiko botekin bizikletaren zakutoan”, Dorleta Guzmán.

19:00: Zigoitia antzokia - teatro (Zizkino mendi taldea).

#### 11 / Larunbata - sábado

##### Perfomance eszenikoa -

Teatro performativo. “Nire irudia zure haragian”, Kafuné Kolektiboa.

19:00: Zigoitiko Gizarte eta Kultur Etxea - Centro sociocultural de Zigoitia. Kontatzen dute emakumeak zikloa. Bideart Eszena.

#### 14 / Astearta - martes

##### Hitzaldia - Charla.

“Dos años en bicicleta en busca de algo más”, Ana Zamorano.

18:30: Zigoitia antzokia - teatro (Aulas +55).

#### 18 / Larunbata - sábado

##### Antzerki dokumentua -

##### Teatro documental.

“43°13'44'' N”, Olatz Gorrotxategi.

19:00: Murua, Gizarte zentroa - Centro social. Kontatzen dute emakumeak zikloa. Bideart Eszena.

#### 21 / Astearta - martes

##### Hitzaldia - Charla.

“Alimentos o métodos de cocinado para mejorar o facilitar la masticación/deglución/digestión”, Iker Gómez.

18:00: Zigoitia antzokia - teatro (Aulas +55).

#### 25 / Larunbata - sábado

##### Antzerki - Teatro.

“Justicia” Carmen San Esteban.

19:00: Apodaka, Gizarte zentroa - Centro social. Kontatzen dute emakumeak zikloa. Bideart Eszena.

## ABENDUA - DICIEMBRE

#### 2 / Larunbata - sábado

##### EUSKARAREN EGUNA.

##### Dantza - Danza.

“Geltokia”, Aukeran dantza taldea.

19:00: Zigoitia antzokia - teatro.



#### 4 / Astelehena - lunes

##### EUSKARAREN EGUNA.

##### Magia-ikuskizuna.

“Aroa eta mirariak”, Asier Kidamen. Gorbeia Eskolan, goizean zehar.

#### 17 / Igandea - domingo

Final Bolos - XXXV Campeonato de Bolos de Zigoitia.

11:00: Bengolarra.

#### 24 / Larunbata - sábado

##### Gabonetako krossa - Cross navideño

11:30

Olentzero eta Mari Domingi, ongi etorriak!

18:00: Bengolarra.

